

8.1. Hizkuntza eta idazkera egokiak aukeratzea

Buruketa baten ebazpena arazoari lotutako planteamendu mentalaren araberakoa izan ohi da. Planteamendu honek hizkuntza jakin bat, idazkera egoki bat edo kode egoki bat erabiltzera garamatza. Hizkuntza asko daude:

- Logikaren hizkuntza.
- Analogikoa: Polya, Burton-Mason-Stacey eta hainbat eredueta baliatzen dena.
- Piktorikoa: irudi, eskema edo diagramekin lan egiten duena.
- Matematikoa: algebraikoa/analitikoa, geometrikoa, piktorikoa etab. izan daitekeena.
- ...



Edozein hizkuntzarako, idazkera egokia aukeratu behar da. Idazkeraren hautaketan ondokoa hartu behar da kontuan:

- ☞ Argia, zehatza eta gogoan hartzeko erraza izan behar dela.
- ☞ Gogoan edukitzeko eta antzemateko errazak direnak eta anbiguoak ez diren zeinuak erabili behar direla.
- ☞ Zeinuen ordenak eta erlazioak objektuen ordena eta erlazioa iradokitzen dutela.

Adibide bat ikus dezagun:

ARTZAINA, OTSOA, ARDIA ETA AZA.

Artzain batek ibai ertzean otso bat, ardi bat eta aza bat aurkitu zituen, eta beste aldera pasa behar zituen. Txalupa bat zeukan, eta hemen bera eta aurreko hiruretatik bat bakarrik sar zitezkeen. Ardia eta otsoa bakarrik uzten bazituen, honek hura jango zuen; ardia azarekin bakarrik uzten bazuen, hark jan egingo zuen. Nola eramango ditu hirurak beste aldera?

Estrategien bilaketa:

Saiakuntza-errorearen printzipioa erabil dezakegu, baina beharrezkoa da idazkera egoki bat erabiltzea.


Otsoa: **O** Ardia: **Ad** Artzaina: **Ar** Aza: **Az**
Ibaiaren bi ertzen bereizketa: /

Idazkera egokia erabiltzearen estrategia aurrera ateratzea.

Bideratutako saiakuntza-errorea egitea interesatzen zaigu →

Alde batean		Ibaia	Beste aldean	
Denak alde batean eta artzainak zainduta	OAdAzAr		-	Denak alde batean eta artzainak zainduta
Otsoa eta ardia artzainak zainduta	OadAr		Az	
Ardia eta aza artzainak zainduta	AdAzAr		O	
Otsoa eta aza artzainak zainduta	OAzAr		Ad	
Artzainak ardia zaintzen du	AdAr		OAz	Otsoak aza ez du jaten
Otsoak aza ez du jaten	Oaz		AdAr	Artzainak ardia zaintzen du
	Az		OadAr	Otsoa eta ardia artzainak zainduta
	O	AdAzAr	Ardia eta aza artzainak zainduta	
	Ad	OAzAr	Otsoa eta aza artzainak zainduta	
	-	OAdAzAr	Denak alde batean eta artzainak zainduta	

Onartutako egoeren simetria ikusi, eta, bidaiak geziekin adierazi ondoren, buruketaren soluziobideak aurkituko ditugu:



Erantzuna aurreko eskeman.

Erantzuna lortu ondoren, hausnarketa hau proposatzen dizut:

Artzain, ardia, otsoa eta azarekin batera, otsoa jaten duen tigre bat egon bazen zer gertatuko ote zen pentsatzea.

